

## 834/2020 EBAZPENA, DONOSTIALDEA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEARENA, ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ONARTZEN DUENA, ERRADIODIAGNOSTIKOKO INTERBENTZIONISTA ATALBURU LANPOSTUA LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO

### AURREKARIAK

**Lehenengoa.**- Zuzendaritza Gerentzia honen urriaren 24ko 2152/2019 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa iragarri zen, erakunde honetako Erradiodiagnostikoko Interbentzionista atalburu lanpostua lehiaketa bidez betetzeko (2020ko otsailaren 14ko 31 EHAAn eta 2020ko otsailaren 12ko 37 BOEn argitaratua).

**Bigarrena.**- Erakunde honetako zuzendari gerentearen ekainaren 3ko 665/2020 Ebazpenaren bidez iragarritako lehiaketaren onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen. Eskabideak aurkezteko epea hamar egun baliodunekoa zen, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

**Hirugarrena.**- 2020ko ekainaren 16an bukatu zen erreklamazioak aurkezteko epea. Ebazpenaren kontra ez da erreklamaziorik aurkeztu.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Bakarra.**- 2152/2019 Ebazpenaren 4. oinarriaren arabera, behin behineko onartuen eta baztertuen zerrenda behin betiko bihurtuko da baztertutako izangairik ez baldin badago.

Azaldutakoagatik, eta Osakidetzaren Estatutu Sozialetako 15.1.e artikulua zuzendari gerenteoi ematen dizkigun eskumenez baliatuta (azaroaren 11ko 255/97 Dekretua, azaroaren 14ko 219. EHAAn argitaratua), eta lehiaketaren oinarriak betetzeko, honakoa

### EBAZTEN DUT


**Lehenengoa.**- Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea, erakunde honetako Erradiodiagnostikoko Interbentzionista atalburu lanpostua lehiaketa bidez betetzeko prozesuaren barruan. Zerrenda eranskinean jasota dago.

**Bigarrena.**- Ebazpen hau argitaratzea, Osakidetzako web orrian eta erakunde honetako intranetean.


Ebazpen honen kontra Osakidetzako zuzendari nagusiari zuzendutako gorako helegitea aurkeztu ahal izango da, jakinarazpena jaso eta, biharamunetik hasita, hilabeteko epean, betiere, kontuan hartuta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikulua (urriaren 2ko BOE, 236 zk.).

Donostian, 2020ko ekainaren 17an

ZUZENDARI GERENTEA

 **E: Pertsonaleko zuzendaria**  
(53/2019 Ebazpena urtarrilaren 24koa)

DONOSTIALDEA ESI  
CSI DONOSTIALDEA

  
PERTSONALEKO ZUZENDARITZA  
DIRECCIÓN DE PERSONAL

**Izpta.: Esther LITAGO SOLA**

**ERANSKINA**

**LANPOSTUA:** Erradiodiagnostikoko Interbentzionista atalburua

**BEHIN BETIKO ZERRENDA**

**Onartuak:** Jose Angel LARREA PEÑA

**Baztertuak:** Inor ez

Donostian, 2020ko ekainaren 17an

~~ZUZENDARI GERENTEA~~  
~~E: Pertsonaleko zuzendaria~~  
(53/2019 Ebazpena urtarrilaren 24koa)

~~DONOSTIALDEA ESI  
OSI DONOSTIALDEA  
PERTSONALEKO ZUZENDARITZA  
DIRECCIÓN DE PERSONAL~~

**Izpta.: Esther LITAGO SOLA**